

ira.

Harkaitz Canoren Mekanografiak



Julio Cortazarren hileta, Cesare Paveseke poker Jkarta batean idatzitako azken poema, olinpiadetan pertika jauzilariaren zain dagoen euskal presoaren bikotekidea, Raymond Carver Bilboko errabaletan, Niagarako ur-jauzia gurutzatu nahi zuen ekilibrista kanadiarra, Txerrenen exekuzioa Samarkandan, Varsoviako Santa Cruz elizan Chopinen bihotz taupadak, Margaret Astorren heziketa jibaroa... hona Irati Jimenez idazleak Harkaitz Canoren ipuingintzatik hautatutako ipuinetan aurkituko ditugun pasadizoetako batzuk. Mundakarrak dioen bezala, “literatura errealitatez elikatzeko sistema ugari daude eta Harkaitz Canorena tipula azalez osaturiko bihotz kuantiko baten antzera mugitzen da: errealitatearen errebaletara abiatzen denean, literaturaren taupada aurkitzen du”.

HARKAITZ CANO

Mekanografiak

Antologia Irati Jimenez

Narratiba

Txalaparta

304 or.

19,00 €

15,20 € Klub



Aldaketa abuztuaren 25a baino lehen

Idazle batzuk gauza bat egiten dakite eta oso ondo egiten dute, baina beste idazle batzuk gauza asko egiten dakite eta horiek guztiak oso ondo egiten dituzte; Harkaitz Cano bigarren talde horretakoa dugu. Euskal literaturaren azken hamarkadetako erreferentzia nagusienetakoa da Harkaitz eta gure literaturako ipuingilerik oparoenetakoa dugu. Irati Jimenez idazleak lasartearrak idatzitako

hamarnaka ipuinen artean genero eta formatu ezberdinetako narratiborik onenak bildu ditu irakurlearen gozamena helburu jarrita: mikroipuinak, fantastikoak, errealistak, metaliterarioak, umoretsuak, gordinak, surrealistikak, satirikoak... Gure literaturak daukan idazle osoenatariko, oparoenatariko eta trebeenatariko baten mundu literario berdingabea ezagutzeko eta gozatzeko egindako oparia da antologia hau.

Eskularru pare batek, gizon baten traza minimoak, karruselak, paisaia desolatu batek... edozein gauzak eskaintzen dio Canori haritik tiraka hasi eta inora ez doan ipuin magiko bat idazteko lehen puntua.

IGOR ESTANKONA

Harkaitz Canok benetako trebetasuna dauka oso sinpleak diruditen osagaien bidez istorio erakargarriak kontatzeko. (...) Canok badaki edozein gertaera, edozein keinuren atzean unibertso osoa laburbil daitekeela, eta hori islatzen du bere ipuinetan.


JAVIER ROJO

Agian hau esatea boutade bat da, baina literaturaren (oro har artearen) eta bizitzaren arteko harremana arakatzeara, hari horiekin jolas egitea izan da eta da Harkaitz Canoren literaturaren oinarri eta funts nagusietakoa.

IBON EGAÑA



Harkaitz Cano: tipula azalez osaturiko bihotz kuantiko bat



Egilea: Irati Jimenez

Harkaitz Cano (Lasarte, 1975). Donostian burutu zituen zuzenbide ikasketak, baina idaztea izan du beti ogibide. Lubaki Bاندan hasi zen literatur jardunean eta 1994an argitaratu zuen bere lehen idazlana, Kea behelainoan bezala poesia liburua. Gerokoak dira Beluna jazz (1996) eta Pasaia blues (1999) eleberriak, Belarren ahoa (2004) ukronia eta Neguko zirkua (2005) eta Beti oporretan (2015) ipuin bildumak. Hiru bider irabazi du Euskadi Saria eta bi aldiz Espainiako Kritikarena. Twist (2011) nobelarekin, 111 Akademia aipamena ere erdietsi zuen. Besteak beste Sylvia Plath, Anne Sexton, Hanif Kureishi, Paul Auster eta Allen Ginsberg euskaratu ditu eta nederlandez, galegoz, grezieraz, ingelesez, gaztelaniaz, errusieraz, alemanez eta italieraz irakur daitezke bere liburuak.

Idaztera eseri nahi duenak lehenik eta behin bizitzeko zutitu behar du. Hori dio, behintzat, idazleei behin eta berriz ematen zaigun gomendioak. Paperera bizitza ekarri behar dela, alegia, literaturak egiaren arnasa izan dezan. Baina literatura errealitatez elikatzeko sistema ugari daude eta Harkaitz Canorena tipula azalez osaturiko bihotz kuantiko baten antzera mugitzen da: errealitatearen errebaletara abiatzen denean, literaturaren taupada aurkitzen du. Eta literaturari barrenak atera nahi dizkionean, meta-ariketa horiek bizitzaren emoziorik autentikoenetara eramaten du. Joko hori behin eta berriz errepikatzen da Mekanografiak libururako aukeratutako narrazioetan.

Modu apetatsuan nahastu ditut, kronologiari arretarik jarri gabe, irakurlearen gozamena helburu jarrita. Benetako pertsonaien biografia faltsuak aurkituko ditu irakurleak, existitzen diren lekuetara egin gabeko bidaien kronikak, modu errealistan idatzitako narrazio fantastikoak eta errealistak izanik ezinezkotasunaren oihartzuna duten ipuin onirikoak. Tartean daude euskaraz inoiz argitaratu gabeak zein beste idazle batzuekin lan kolektiboetarako idatzitakoak. Batzuetan Harkaitz Cano gazte baten oparotasun literario ia delirantea ageri da; beste batzuetan, gure gizartearen iluntasunari orriaren ahoarekin ebakia egin nahi dion kronista. Denetan aurkituko du irakurleak euskal literaturak daukan idazle osoenatariko, oparoenatariko eta trebeenatariko baten oparia. Literaturan bizitza bat aurkitu duen artista eta bizitzan, literatura asko.